

## PAZKOALDIKO 4. DOMEKEA/B

### Amaierarako abestia

Zeru-lurren erregina: alleluiah! Alleluiah!  
Biztu jaku Jesus Jauna: alleluiah!

–Zuregandik sortu dana: Alleluiah!  
hilobitik zutitu da: alleluiah!

---

### Beste abesti batzuk

R/. Biztu da Kristo, Aleluia. Guregan dago, Aleluia.

–Jainkoak dau-ta gaur Kristo biztu: Aleluia!  
Bere indarrez biztuko gaitu: Aleluia, Aleluia. R/.

–Gure gorputza dau-ta egoitza: Aleluia!  
Orain berekin gaitu bat egin: Aleluia, Aleluia. R/.

–Jaunari kanta, goresmen eman: Aleluia!  
bai bihotz eta bai gorputzean; Aleluia, Aleluia. R/.

R/. Kristo bizi da, bizi, lehen, orain, beti.

1 Hilen artetik jaku Kristo barriz biztu,  
lotan daozenetatik lehen bizi-fruitu.  
Berak heriotzea, biztuz, dau garaitu.

2 Hilen artetik jaku Kristo barriz biztu  
eta heriotzea, biztuz, desegin du.  
Non dok, Heriotzea, hire garaitzea?



ELIZ ALKARTEAREN  
domekako elizkizuna

*(Gurejauna altara gainean jarri daiteke. Agurtu ondoren – belauna okertuz edo burua makurtuz–, esan):*

–Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **ERRUKI, JAUNA.**

–Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **ERRUKI, JAUNA.**

–Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua: **EMOIGUZU BAKEA.**

*(Hostia bat eliztarrei erakutsiz, esan:)*

–Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko pekatua kentzen dauana: zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak.

\* *Jauna, ni ez naz inor zu nire etxean sartzeko, baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.*

#### Jaunartzerako abestia

Gurekin egon, gurekin, Jauna,  
behar dogu-ta hitzegin:  
heldu da gaua, ilun-iluna.  
Gurekin egon, gurekin!

*Zertaz diharduzue hitzegiten bide guztian bihotz ilun?  
Hara, Jerusalem gertatuaz: Jesus hil dela, harainegun.*

*Kristok behar zituen jasan behar horreik guztiok jasan behar.  
Biztu ta halan eiten ospean sar betiereko ospean sar.*

Gogoratu daigun gure Bateoa: bertan izan ginan pekatutik askatuak, bizi barrira aldatuak, Kristo Jainko biziagan txertatuak, haren biziak gudan iraun eian. Jainkoaren seme-alaben poztasunez abestu daigun:

Bateoko uretan, Jauna, gaituzu  
pekaturako hil ta zeuretzat biztu.

*–Bateoagaitik, / eskerrik asko,  
seme-alaba egin / gaituzulako.*

*–Bateoan ginan / hil Jesusegaz  
geroztik gaitezan / bizi beragaz.*

#### Aintzarako

Goretsi daigun guztion Egile eta Aita/Ama dogun Jainkoa:

Jauna, gure Jainkoa: **BEDEINKATUA ZU**  
Zeru-lurren egile: **BEDEINKATUA ZU.**  
Guztien Salbatzaile: **BEDEINKATUA ZU.**  
Gure Jabe zara-ta: **BEDEINKATUA ZU.**

Jesus, Jainko-Semea: **BEDEINKATUA ZU.**  
Guregatik hil zara: **BEDEINKATUA ZU.**  
Aitak biztu zaitu-ta: **BEDEINKATUA ZU.**  
Gure artean zagoz: **BEDEINKATUA ZU.**

### *Oharra*

Jainkoak bere bizia erdikatzen dau gugaz eta bere Semea hilen artetik biztu eta bere eskoi aldean jarriazoz emon deusku horren erakutsia: geu ere bere eskoi alderako garala. Gure ondasunak alkarbanatuz erakutsi geike geure bizia behartsuekaz alkarbanantzen dakigula. Horren ezaugarri izan da itela oraingo eske-batzea.

### ESKARIAK

† Bere maitasunaren barri egunero emoten deuskun Jainkoari usterik onenaz eskatu deiogun jakin daigula maitasun horretan poz hartzen eta besteengana ere zabaltzen:

- Elizearen alde: bere seme-alabak elizkizunez betetea barik Barri Onaren pozaz asetzea birlatu daian, mezu hori bazterretan dagozanengana helduazoz, *eskatu deiogun Jaunari*.
- Elizgintzan diharduen bokazinodunen alde, batez ere andrazkoen alde: Eliza hau errukiorrago bihurtu daian, eta amatasunezko harreara bultzatu daian, *eskatu deiogun Jaunari*.
- Gure familietako gurasoen alde: umeen benetako ardurea izan daian, maitasunean eta

Etzegileek baztertutako harria giltzarri egin da.  
Jaunak egin dau hori,  
gure begien harrigarri. R/.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!  
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu.  
Zu zara nire Jainko, eskerrak Zuri!  
Gora Zu, ene Jainko hori!  
Eskerrak Jaunari, ona da-eta,  
haren maitasuna betikoa da-eta. R/.

### HITZAREN LITURGIA

#### *Lehenengo Irakurgaiari Oharra*

*Gure inguruan izen ona behin eta barriro zikintzen da, zirkinik ere eragiten ez deuskula. Baina Berbiztuaren izenak osatu egin daike beragan ustea jarten bada.*

#### Apostoluen Eginak liburutik (Eg 4, 8-12)

Orduan, Pedrok, Espiritu Santuaz beterik, esan eban: «Herriko agintari eta zaharrok, gaur, gaixo bati eginiko mesedea dala eta, noren eskuz osatu dan itauntzen deuskuzue; bego, beraz, argi zuentzat guztiontzat eta Israel herri osoarentzat, zuek kurutzeratu eta Jainkoak hilen artetik biztu eban Jesu Kristo Nazaretarraren izenean dozuela gizon hau zeuen aurrean osaturik. Jesus hauxe da zuek, "etzegileok, baztertutako harria, giltzarri jazo dana". Honengan bakarrik dogu salbamera, ez deusku-eta Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor emon eguzkipean, gu salbau gaikezanik».

*Jaunak esana*

† Aitaren eta Semearen eta Espiritu santuaren izenean.

—Amen.

† Ondo etorri, senideok, Pazkoaldiko IV. domeka honetan Artzain Onaren ingurura. Bera dogu eredu, zaintzaile eta bizitz-emoile. Adi egon gaitazan bere esanetara. Aurkeztu deioguzan gure kezka, bildur eta amesak; eta bera dogula ondoan jakinik zaindu daigun alkar, eta artalde honetan ez dagozanen ardurea ere izan daigula eskatu daigun. Agertu daigun gure poza, abestuz.

### Sarrera-abestia

R/. **Bizi da Jauna, bizi da!** Bizi da Jauna, bizi da!  
Bizi da, bizi da, bizi da Jauna, bizi da gure artean! (bir)

*Pazko goizean hutsik dago hilobia.  
Biztu da Kristo, biztu, gure eguzkia:  
nagusi da argia! R/.*

*Ilunpetatik berak gu atara gaitu;  
munduaren distira berak dau barritu:  
berak gaitu biztu. R/.*

### Uraz ihinztatzea

(Ohartxo egin dondoren, abesten dan bitartean, urez ihinztatu herria, eta Aitearen egin. Ondoren Aintza abestu).

*(Gurejauna gorde ondoren, isilunetxo bat egin daiteke, eta oharrak eginez —balegoz— otoitza esanez amaitu).*

### OTOITZA

Zure ardiak ondo ezagutzen dozuzan  
Artzain On eta eredugarria:  
maite dozuzelako ezagutzen dozuz  
eta errukia deutsezu galduei.

Zure artaldeko gaituzunoi  
zabaldu eiguzuz ahalmenak eta barrua  
zuk artalde honetako ez diranekaz  
dozuzan kezkea eta antsia  
geure kezka eta antsi bihurtu daiguzan.

Irakatsi eiguzu zeure inguruan alkartzen,  
zure ahotsa entzunez hari jarraitzen,  
eta zure pozean bizi izanez  
artalde honetako ez diranak ere zeuganatzen.  
—Amen.

† Bedeinka gaizala Jainko ahalguztidunak: Aitak  
eta Semeak eta Espiritu santuak.  
—Amen.

† Goazen Jaunaren bakean.  
—Eskerrak Jainkoari.

Espiritu Santua: BEDEINKATUA ZU.  
 Bizien bizigarri: BEDEINKATUA ZU.  
 Poz-emoile bikaina: BEDEINKATUA ZU.  
 Negarretan pozgarri: BEDEINKATUA ZU.

*Egin daigun otoitz Jesus gure Jaunak egiten eban lez: horretarako salmoak erabiliz. Salmugileak lagunduko deusku Jainkoa goraltzearen poza hartzen.*

(otoitz hau jesarrita egin daiteke)

### ERANTZUN-SALMOA

Sal 117, 1 eta 8-9. 21-23. 26 eta 28-29

R/. Etxegileek baztertutako harria, berori jazo da giltzarria.

J = 70 PZK04B: Ps 117 Udaia'15

E - txee-gi-le - ek baz-ter - tu - ta-koha-ri - a be - ro-ri - ja-zo da gil-tza-ri - a

Eskerrak Jaunari, ona da-eta,  
 haren maitasuna betikoa da-eta.  
 Hobe da Jaunagan babestea  
 gizakiaz fidatzea baino;  
 hobe Jaunagan babestea  
 handikiez fidatzea baino. R/.

Eskerrak Zuri erantzun deustazulako,  
 nire salbatzaile izan zaralako.

errukian hazi daiezan, eta Artzain Onaren mezuak entzuteko zoliak izan daitezcan, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Herri-agintarien alde: ustelkeria gaitzetsi daien hitzez eta egitez, eta behartsuen eskariei entzumena eta urtenbidea emoten ahalegindu daitezcan, *eskatu deiogun Jaunari*.

—Artzin Ona eredu dogunon alde: artalde honetan ez dagoenetaz ardura handiagoa agertu daigun, gure betekizunek baino Artzain Onaren ahotsa eurek entzuteak gehiago arduratu gaizan, *eskatu deiogun Jaunari*.

† Gure otoitzak Jesus Jaunak irakatsitakoan indar hartu daian, esan daigun gogotsu, Jesusek berak irakatsitako otoitza:

**GURE AITA ZERUETAN ZARANA,  
 SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA,  
 ETOR BEDI ZURE ERREINUA,  
 EGIN BEDI ZURE NAHIA  
 ZERUAN BEZELA LURREAN ERE.  
 EMOIGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA,  
 PARKATU GURE ZORRAK  
 GEUK ERE GURE ZORDUNEI  
 PARKATZEN DEUTSEGUN EZKERO  
 ETA EZ GU TENTALDIRA EROAN  
 BAINA ATARA GAGIZUZ GATXETIK.**

### **Bigarren irakurgaiari oharra**

*Gure sinsmenean sutsuagoak ez bagara, gure sinismena emonkorragoa ez bada..., ez ete da, gero, Jainkoaren maitasunearen berotasunik ez daukagulako? Entzun deiogun Joan apostoluari Jainkoaren maitasunez bete gaizan.*

**San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik (1 Jn 3, 1-2)**

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu deuskun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena daroaguetan, baita izana be. Hona zergaitik munduak ez gaituan ezagutzen: Aita be ezagutu ez ebalako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garana oraindino ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko danean, haren antzeko izango garala, dan lakoa ikusiko dogu-eta.

*Jaunak esana*

### **Ebanjelioa**

*Ebanjelio hau entzuterakoan jarri daigun arreta Jesusen antsian: badaukazela bere artaldetik kanpo dagozan ardiak esaten dauanean. Egin deiogun harrerea Aleluia abestuz, zutunik.*

**ALELUIA! ALELUIA! ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik (Jn 10, 11-18)**

Aldi haretan, Jesusek esan eutsan jenteari: «Neu naz artzain ona. Artzain onak

bere bizia emoten du ardien alde. Ez, ostera, morroiak, artzain ez danak eta ardiak ere bereak ez dituanak; honek, otsoa etorten ikustean, ardiak itzi eta ihes egingen dau; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria jako ardura eta ez ardiak. Neu naz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neureek ezagutzen nabe Ni, Aitak Ni ezagutzen nauan eta Nik Aita ezagutzen dodan lez. Nik neure bizia emoten dot ardien alde. Baditut artegi honetakoak ez diran beste ardi batzuk ere; honek ere erakarri egin behar ditut; entzungo dabe nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean.

Horregaitik maite nau Aitak: neure bizia emoten dodalako, barriro eskuratzeko. Ez deust bizia inork kentzen, Nik neure kabuz emoten dot. Neure esku dot emotea eta neure esku barriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dodan agindua».

*Jaunak esana*

*(Ondoren DIRU-BATZEA, egin daiteke)*